



INMOBILIARIA URME - XXIII.en TXINGUDI KORRIKA 10K

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Irun eta Hondarribiako **SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak** eta Hendaiako **Urpean Subaquetique, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa, URME etxe-agentzia eta SALTO Systems**-en babesarekin, **TXINGUDI KORRIKA 10K** Lasterketaren XIII.en edizioa, **2020ko urriaren 1ean, larunbata**, antolatuko dute. Lasterketa honek Hendaia eta Hondarribia lotuko Irundik pasata.

Lasterketak Hendaiako Florida kaian (Rue des Orangers, 10), azken urteetan bezala, izango du irteera puntua, eta [ohiko ibilbidea](#) jarraituko du, helmuga Hondarribiako Hondartza kiroldegiko atletismo pistan kokatuta izango delarik. [Ikusi planoa](#).

Lasterketaren irteera errazteko, irteera-eremu mugatuak antolatuko dira, parte-hartzaileek izena ematekoan aurreikusitako amaiera-denboren arabera. Eremu horiek **16:30etik** aurrera, hau da lehen korrikalariak ateratzeko aurreikusitako ordutik aurrera, modu ordenatuan husten joango dira. Irteeran, helmugan eta 5.en kilometroan, korrikalarien pasaera kontrolatzeko, azpiegitura kokatuko da eta sailkapenak, irteerako seinaletik eta helmugako alfonbratik pasa arteko denboraren arabera finkatuko dira. Hala ere, korrikalari bakoitzak irteera- eta helmuga-alfonbratik pasatu artean igarotako denbora ere agertuko da sailkapenetan. Sailkapenak [Bidasoa Atletiko Taldearen webgunean](#) eta bere [sare sozialetan](#) argitaratuko dira, eta [kirolprobak.com](#) atarian zuzenean jarraitu ahal izango dira.

Proba amaitzeko gehieneko denbora, irteera seinalea eman eta ondoren, 1h15ekoa izango da.

Lehenago, **16:20etan**, Handbike eta Gurpildun aulkien lasterketari emango zaio irteera, eta bi modalitateetarako eta gizon eta emakumeentzako sailkapen bereziak ezarriko dira.

Halaber, Joëlette modalitateko ekipoak edo lagundutako gurpil-aulkiak inskribatu ahal izango dira. Talde bakoitza mugikortasun urriko bidaiari batek, eta gehienez 4 laguntzaile edo gidari osatuko dute. Beharrezkoa da aitzindari horietan alde zuzeneko esperientzia izatea eta hori frogatu ahal izatea. Laguntzaile edo gidariak gizon naiz emakumezkoak izan daitezke eta sailkapen bakarra ezarriko da. Modalitate honetako parte-hartzaileak lasterkariekin batera abiatuko dira, espero den denbora-mailaren arabera antolakuntzak irteera eremu aproposenean jarriko ditu.

Hendaia eta Hondarribia arteko Txingudi Korrikarekin batera, **SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak** Txingudi Korrika Txikiaren 7.en edizioa antolatuko du, Stadium Gal zelaiaren inguruan, probaren goizean bertan antolatuko da. Datorren asteetan bere araudi propioa argitaratuko da.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duenak parte hartu ahal izango du, kategoria, sexu edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez, parte-hartzeko **gutxieneko adina 14 urte** izanik.

Parte-hartzea **1.000 korrikalarietara** mugatuta egongo da.

Parte hartzaile bakoitzak bere erantzukizun osoz parte hartuko du lasterketan, eta, horretarako, lasterketaren egunean maila fisiko egokia aurkeztu beharko du honelako erronka bati aurre egiteko.

Pandemiak edo ezohiko beste osasun-egoera batzuk direla-eta izan daitezkeen murrizketei begira, antolakuntzak momentu oro, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen osasun-araudia onartuko du, eta korrikalariei jakinaraziko die lasterketan parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak. Parte hartzailearen erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea, eta hauek betetzen dituela egiaztatu ezin baldin bada, parte-hartzea ukatuko zaio, izen ematearen zenbatekoa itzultzeko eskubiderik izan gabe.

Aurreko paragrafoan aipatutako arrazoiren bat dela-eta parte hartzaileen gehieneko kupoa mugatzen baldin bada, antolakuntzak zoketa-eredu bat zehaztuko du parte-hartzaileak aukeratzeko, eta saririk ez duten korrikalariei aukera emango die izena ematearen zenbatekoaren %100 itzultzeko edo eta 2023ko ediziorako izen-ematea gordetzeko.

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK

Izen-emateak uztailaren 4an irekiko dira. Denboren hartzea dortsalari itsatsita dagoen txip batekin egingo da. Oinezko lasterketan Izen-ematearen prezioa aldatuz joango da, eta lasterketaren egunean, gainkostu batekin, izena emateko aukera egongo da irteeran.

- 11€ lehen 100 izen-emateak
- 13€ lehen 300 izen-emateak eta 2022/08/31ko 23h59 baino lehen
- 15€ 2022/09/30ko gaueko bederatziak arte.
- 20€ 2022/10/01, lasterketaren egunean bertan, irteeran, 14:30tik 16:00ak bitartean

Handbike eta Gurgildun Aulkien lasterketan izena emateko 13 €-ko prezio bakarra ordaindu beharko da.

Joëlette modalitatean izena ematea talde bakoitzeko izango da, eta talde bakoitzak 30 €-ko prezioa ordainduko du. Izen emate horrek taldekide bakoitzarentzako dortsala naiz lasterkariaren poltsa bermatuko ditu. Era berean, kide guztiak aseguraturata egongo dira, eta gainerako parte-hartzaileen zerbitzu berberak erabili ahal izango dituzte.

Izen emateak on-line egin ahal izango dira, www.kirolprobak.com plataforman, irailak 30ko arratsaldeko zortziak arte, eta probaren egunean bertan, Hendaiako irteerako idazkaritza-gunean, proba hasi baino ordu erdi lehenago arte. [Ikusi plana](#).

Era berean, Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan izena emateko aukera eskaintzen da, Leandro Agirretxe 1, 2.en solairuko, 8.en bulegoan (Palmera Montero eraikinean), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14: 00etara.

Izena ematearen zenbatekoa ez da itzuliko antolakuntzari egotzi daitezkeen arrazoiengatik proba bertan behera utzi ezean. Lasterketa, ezinbesteko arrazoi batengatik, hala nola, egoera meteorologiko txarrak, lurrikarak, eraso terroristak, pandemiak, ezohiko osasun-egoerak eta abar, bertan behera utziz gero, izen-emateak automatikoki 2023ko ediziorako baliagarriak izango dira.

Irailaren 24ra arte, izen-ematearen jabetza aldatu ahal izango da. Horretarako, [Parte-hartzailearen Gune Pribatua](#) erabiliko dute korrikalariek.

Egun horretatik aurrera, salbuespenezko egoeraren bat egiaztatu ahal duten korrikalariei, izen ematea 2023ko ediziorako gordetzeko aukera emango zaie.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEKO MODUA ETA DERRIGORREZKO TXIP-A

Irailaren **29ra arte** egindako **izen-emate guztietarako**, korrikalariaren poltsa, dortsala eta txipa barne, Irungo [Mendibil Merkataritza-Gunean](#), honako ordutegi honetan jaso ahal izango dira:

IRAILAK 30, OSTIRALA 18:00etatik -21:00etara

Irailaren **30ko izen-emateetarako**, aurretik **jaso ez** diren **dortsalentzako** eta **irteeran bertan izena ematen dutenentzako**, korrikalariaren poltsa, dortsala eta txip-a barne, **lasterketaren egunean 14:30etik 16:15era** irteerako idazkaritza gunean jasoko dute.

Txip-dortsala jasotzeko, bai formatu digitalean, bai eta paperean inprimatuta, izen ematearen agiria eramatea gomendatzen da. Egiaztagiri horrek irakurri egingo den QR kode bat du. Bestela, NANA edo nortasun-agiri bat aurkeztu beharko da dortsal-txipa jasotzeko. Pertsona batek beste korrikalari baten dortsala hartu nahi badu, izen ematearen agirira aurkeztu beharko du. Inskripzioaren egiaztagiria izen emate-prozesuan emandako posta elektronikoa jasoko dute partehartzaileek.

5. ARTIKULUA - KORRIKALARIAN POLTSA

Korrikalariaren poltsak lasterketaren **dorsal-txipa** izango du, eta norberaren izenarekin pertsonalizatuko da, hilaren 24a, larunbata, baino lehen izena ematen dutenentzat. Horrez gain edizio honetako **kamiseta** eskainiko da. Dorsal-txipari itsasgarri bat erantsiko zaio, kontsigna-zerbitzuaren erabilerari begira motxilak identifikatzeko.

6. ARTIKULUA - IRTEERA-EREMUAK ETA LASTERKETAKO ERBIAK

Izena ematerakoan, parte-hartzaileak, bere egoera fisikoaren arabera, lasterketa bukatzeko beharko duen denbora aurreikusiko du. Ondoren antolakuntzak bere mailarako egokia den irteera-eremuan kokatu du parte hartzaile bakoitza.

5 irteera-eremu egongo dira:

- Eremu Zuria: 37min30 baino gutxiago
- Eremu Gorria: 37min30 eta 42min30 bitartean
- Eremu Beltza: 42min30 eta 47min30 bitartean
- Eremu Arrosa: 47min30 eta 55min bitartean
- Eremu Urdina: 55min baino gehiago

Antolatzaileek erritmo ezberdinetan lasterketa burutuko duten erbiak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, lasterkari bakoitzak bere helburua lortzen laguntzeko.

Honako erritmo hauetarako erbiak egongo dira:

- 3:30ko erritmoa / 35min (10k) esparru zurian
- 3:45ko erritmoa / 37min30 (10k) gunee gorrian
- 4:00ko erritmoa / 40min (10k) esparru gorrian
- 4:15ko erritmoa / 42min30 (10k) esparru beltzean
- 4:30ko erritmoa / 45min (10k) esparru beltzean
- 4:45ko erritmoa / 47min30 (10k) esparru arrosan
- 5:00ko erritmoa / 50min (10k) esparru arrosan
- 5:30ko erritmoa / 55min (10k) gunee urdinean
- 6:00ko erritmoa / 60min (10k) gunee urdinean

7. ARTIKULUA - IBILBIDEA

Ibilbidea trafikoari itxita egongo da eta proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzak izendatutakoak izango dira. Hauek behar bezala baimendu eta identifikatuko dira.

Antolakuntzak lasterketako zirkuitua homologatzeko prozeduran murgilduta dago. Hala ere, zirkuitua dagoeneko World Athletics-ek eta RFEA-k ibilbideko zirkuituak homologatzeko onartutako prozedura eta tresna berberak erabiliz neurtuta eta seinaleztatuta dago.

Ibilbide osoan zehar puntu kilometriko guztiak, eta baita ere 500 metro, 300 metro, 200 metro eta 100 metro helmugarako puntuak argi eta garbi seinaleztatuta egongo dira.

Ibilbideari, puntu kilometrikoei, gune logistikoei eta abarrei buruzko informazio eguneratua honako esteka honetan eskuragarri egongo da: [Ibilbidea ikusi](#)

Esteka honetan lasterketaren profila aurki daiteke. [Profila](#)

Nolanahi ere, Antolakuntzak, egoerak hala eskatzen badu, ibilbidea aldatzeko eskubidea izango du.

8. ARTIKULUA - SOROSPEN MEDIKOA

Ibilbidean zehar eta helmugan mediku-laguntza egongo da, baina, nolanahi ere, parte-hartzaileek kirol-jarduera mota honi datzekion arriskuak onartuko dituzte.

9. ARTIKULUA- DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran, helmugan eta 5.en kilometroan denbora kontrolak egongo dira. Korrikalari guztiek nahitaez kronometratze alfonbretatik pasa beharko dute. Korrikalariak honako kasuetan automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa burutzen ez badute.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo ezkututzen badute.
- Beste korrikalari bati esleitutako dortsala eta/edo txip-a eramaten badute.
- Helmugan dorsal eta txipa gabe sartzen badira.
- 14 urtetik beherakoak badira.
- Epaileen edo antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.

Era berean, gogorarazten da zirkuitu barruan erabat debekatuta dagoela antolakuntzakoak ez diren ibilgailu motordunekin edo txirrindekin ibiltzea.

Ofizialki izena eman duten parte-hartzaileek bakarrik izango dute lasterketako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, bai ibilbidean zehar, bai helmugan, hala nola hornidura, laguntza medikoa eta abar. Horiek bularrean jarrita eraman beharko dute une oro, bikoiztu, aldatu edo manipulatu gabe.

Antolatzaileek ez diete inolako arretarik edo zerbitzurik eman beharko ofizialki izena emanda ez dauden pertsoneri edo lasterketan dortsalik gabe edo dorsal faltsuarekin parte hartzen dutenei.

10. ARTIKULUA - HORNIDURA

5. kilometroan gutxi gorabehera hornidura puntu bat kokatuko da (ura) eta helmugan, korrikalari guztiek hornidura solidoa eta likidoa jasoko dute.

11. ARTIKULUA - SARIAK

Azken korrikalaria helmugara iritsitakoan sari banaketa egingo da helmugan gunean, eta, beraz, helmugara iristerakoan, saritutako korrikalariei antolakuntzak horretarako prestatutako karpa-aldagelara joateko gomendioa luzatzen diegu. [Ikusi planoak](#).

Honako hauek sarituak izango dira:

- Lehen 5 gizonak.
- Lehen 5 emakumeak.
- Irun, Hondarribia eta Hendaiako lehen gizona.
- Irun, Hondarribia eta Hendaiako lehen emakumea.

Era berean, 100€ emango zaizkie probako errekorrak lortzen dituzten gizonari eta emakumeari, 30:52 gizonen kasuan eta 35:41 emakumeenean.

Handbike eta Gurpildun aulkien lasterketan lehen sailkatuek, kategoria hauetan, saria jasoko dute ere:

- Lehen gizona Handbikean
- Lehen emakumea Handbikean
- Gurpil-aulkiko lehen gizona
- Gurpil-aulkiko lehen emakumea
- Joëlette modalitateko lehen taldea

12. ARTIKULUA - DUTXATZEKO ETA ARROPA GORDETZEKO ZERBITZUAK

Aldagela eta dutxa zerbitzua Hondartzako Hondartza kiroldegian eskainiko dira. [Ikusi planoa.](#)

Irteeran bi ibilgailu egongo dira, eta parte-hartzaileek motxilak bertan kontsignatu ahal izango dituzte. Ondoren helmugara eramango dituzte, lasterketa amaitzean bertan jasotzeko. Parte-hartzaileei alde aurretik bere motxilak lagatzeko eskatzen zaie ilarak eta pilaketak saihesteko. **Ibilgailuak irteera-gunetik lasterketa hasi baino 10 minutu lehenago abiatuko dira.** Motxilan, beroketan eta lasterketa amaitzean babesteko behar-beharrezkoa ez direnak baino ez dira sartuko, motxilak mugitzerakoan hautsi daitezkeen balio-objektuak edo gauzak ez uztea eskatzen da. Dorsalari atxikita, etiketa auto itsaskor bat egongo da, eta etiketa hori erabili beharko da motxila behar bezala identifikatzeko.

13. ARTIKULUA - APARKALEKUAK ETA IRTEERA PUNTURA JOATEKO MODUA

Hondarribira autoz joan behar direnentzat, bertan dauden aparkalekuak erabiltzea gomendatzen diegu, hala nola, Benta-ko aparkalekua, Hendaiara joateko txalupa har daitezkeen lekutik gertu, edo hondartzako kirol-guneko aparkalekua, helmuga gunean (kirol-portutik eta hondartzatik gertu). Aurten ez da autobusez irteera-puntura joateko zerbitzurik eskainiko.

Hendaiako irteera-gunera autoz joatea erabakitzen dutenentzat doako aparkaleku bat izango dute autoa uzteko. Aparkaleku horren sarreran, gainera, gunea bat izango da, non korrikalariak autoetatik irteeratik 300 metrora jaitsi daitezkeen. Antolatzaileek parte hartzaileei irteera-gunera denborarekin iristeko eskakizuna luzatzen die, azken orduko ilarak eta pilaketak saihesteko.

Arratsalde osoan zehar, Hondarribia eta Hendaiara artean txalupak egongo dira, 15 minutuko kadentziarekin, eta 7 minututan besterik Hondarribitik Hendaiara eramango ditu korrikalariak. Ontziralekua helmugatik 600 metrora dago. **Ibilbidea 2€ prezioa izango du.**

Izena emateko orduan, **14:45, 15:00, 15:15 eta 15:30ko txalupetan bidaiatzeko erreserba egin** ahal izango da, lekuak agortu arte. Lekuen muga dela eta, korrikalariei irteera-puntura zuzenean joateko aukera ematen zaie lasterketaren ondoren txalupa-zerbitzua erabil dezaten irteera-puntura bueltatzeko,. Hondarribitik azken irteera 20:00etan izango da.

14. ARTIKULUA - PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du. Ofizialki izena eman duten parte-hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatuko istripuentzako. Aitzitik, ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoentzako ez die babesa emango. Bestalde, aseguruak lasterketa gunera iristeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak ez ditu bere gain hartuko.

Oso garrantzitsua da korrikalari guztiek benetako identifikazio-datuak ematea (batez ere jaiotze-data eta notasan-agiria) eta berea den dortsalarekin parte hartzea aseguruarekin arazoak ekiditeko.

15. ARTIKULUA - IRUDI-ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGAPENA

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duten momentutik aurrera araudi hau onartzen dute eta Bidasoa Atletiko Taldeari baimena ematen diote, berak edo beste entitateen bitartez, partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa (argazki, bideo eta abarren bidez) egiteko, hala ere soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia zati batean edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialean. (Ramon Iribarren kalea, 4 - behea, atzealdea, 20304 Irun).

16. ARTIKULUA - AZKEN OHARRAK

Antolatzaileek beretzat gordetzen du erregelamendu honetan aldaketaren bat egiteko eskubidea, hala behar izan ez gero, eta lasterketaren izen-emateen webgunean eta korrikalariari ematen zaien informazioan jakinarazi beharko du.

Araudi honetan aurreikusi gabeko guztia RFEA, FFA eta World Athletics-en indarrean dauden Lehiaketa Arau Orokorren arabera arautuko da.